

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

MEDIKUNTZA
ETA ERIZAITZA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE MEDICINA
Y ENFERMERÍA



MEDIKUNTZA ETA ERIZAITZA FAKULTATEA MUGIKORTASUNEN ARAUDIA

**2023ko martxoaren 9ko
Ataleko Batzarrean onartua**

MUGIKORTASUN ARAUDIA. DONOSTIAKO ATALA

Arautegi honen helburua da 2017ko irailaren 28ko, Universidad del País Vasco/ Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) ikasleen nazioarteko mugikortasun programei buruzko UPV/EHUko Gobernu Kontseiluaren Erabakia osatzea, Medikuntza eta Erizaintza Fakultateko, Donostia Ataleko, Erizaintza Gradu ikasleen mugikortasunei dagokienean.

1.- Kanpora doazen ikasleen eskubideak.

2017ko irailaren 28ko araudiaren 4. artikulua aurreikusitakoaz gain, Medikuntza eta Erizaintza Fakultateko ikasleek ondorengo eskubidea izango dute automatikula egiteko hitzordua finkatzen den egunerako harrera unibertsitatean egindako ikasgaien errekonozimendua eginga ez bada: Praktiketako lekuak gordetzeko eskubidea.

Ikaslearen automatikula hitzordua gainditutako kreditu kopurua eta batezbesteko notaren arabera finkatzen dela kontutan izanda, automatikua hitzordua finkatzen den egunerako ikasleak harrera unibertsitatean egindako ikasgaiak errekonozituta ez baditu, Praktika Batzordeak, ikaslearen praktika klinikoetako ibilbidea eta bizilekua kontutan hartuta praktiketarako plazak erreserbatuko dizkio automatikula hasi aurretik.

Erreserba egiteko ikasleak egiaztatu beharko du automatikula hitzordua finkatzen den egunerako kalifikazioak eskuratzeko ezintasuna.

Erreserbatutako plazak automatikula egiteko epea amaitu eta gero jakinaraziko zaizkio ikasleari.

2.- Kanpora doazen ikasleen betebeharrak.

- a) Ikaslea harrera unibertsitatearen egutegira moldatu beharko da. Harrera unibertsitatea eta UPV/EHUren egutegiak bat egingo balute, ikasleak Donostiako Erizaintza Gradu egutegia moldatzeko eskaera egin beharko du.
 1. Lehengo seihilekoko egonaldiei dagokienez, harrera unibertsitatean lehenengo seihilekoa Erizaintza Gradu bigarren seihilekoa hasi ondoren amaitzen bada:
 - I. Praktiken kasuan, ikasleak harrera unibertsitatean den EHUn bigarren seihilekoan galduko lituzkeen egunak aurreratzeko aukera posible den aztertu dezake. Halaber, harrera unibertsitateak ez du egun horiek aurreratzeko inongo obligaziorik izango.
 - II. Azterketen kasuan, ikasleak harrera unibertsitatean galdetu ahal izango du ea azterketak EHUtik online egiteko aukera dagoen.

Egutegia aurreratu edo azterketak online egiteko aukerarik ez bada, ikasleak, EHUUn bigarren seihilekoan galdutako egunak errekuperatu beharko ditu. Praktika klinikoetako egunak errekuperatzeko argibideak emango dira, eta ez dira inola ere kontuan hartuko helmugan egin ahal izan diren soberako egunak.

2. Bigarren seihilekoko egonaldiei dagokienez, ikasleak egonaldia Donostiako Erizaintza Graduako bigarren seihilekoa ekin baino lehen hasi behar badu harrera unibertsitatean, EHUko irakasle arduradunei eskatu beharko die azterketak aurreratzeko, egonaldiak eta azterketek bat egiten badute.
- b) Aurreikusitako ezinak diren egoerak direla eta, esleipenak egin eta gero, harrera unibertsitateak, salbuespenez, hitzartutako baldintzak (terminoak) aldatu izan beharko balitu, esleitutako epealdi osoa egiteko aukerarik ez balego edo aurreikusitako praktika klinikoaren ordu edo kreditu kopurua bete izango ez balira, posible den heinean, ikaslearen egonaldia egoera berrira moldatuko da. Moldaketarekin ikaslearen aprobetxamendu akademikoa ezin bada ziurtatu, ikasleak mugikortasunari uko egin beharko dio.
 - c) Ikasleak, uztaila baino lehen, Donostia Ataleko mugikortasun koordinazioari jakinarazi beharko dio harrera unibertsitatean egin dituen praktika arloa edo arloak zeintzuk diren.
 - d) Ikasleak harrera unibertsitateetako kideekin dituen harremanetan EHUko balore eta printzipioak jarraituz eta errespetuz aritu behar du. Kontziente izan behar du EHU unibertsitate publikoa dela, hitzarmenak baliabide publikoak direla eta jarrera desegokiek hitzarmen horiek hautsi ditzaketela, etorkizuneko gainerako ikasleen egonaldiak baldintzatuz. Era berean, kontziente izan behar du, hein batean, mugikortasun programa batean parte hartzean, EHUren imajina eta isla munduan irudikatzen dituela.
 - e) Ikasleak harrera unibertsitatearen arauak eta jarduerak moduak errespetatu behar ditu.

3.-Ikasleak esleitutako plazari uko egitea.

Ikasleak esleitutako plazari uko egiten badio, parte hartu duen deialdiaren esleipen egutegiaren barruan uko egiteko dituen epeetatik kanpo, hurrengo penalizazioak jasoko ditu:

- a) Egonaldia aurreikusita zegoen ikasturteko automatrikula baino lehen uko egiten badio, automatrikulan ezin izango ditu praktika lekuak aukeratu. Praktika lekuak, bere praktika klinikoan ibilbidea kontutan hartuta, Praktiketako Batzordeak esleituko dizkio ikasleek automatrikula egin eta gero libre geratu diren plazetatik.
- b) Egonaldia aurreikusita zegoen ikasturteko automatrikula egin ondoren egiten badio uko plazari ikasleak, automatrikulan aukeratutako praktiketako lekuak desesleituko zaizkio eta Praktiketako Batzordeak, automatrikua, egin eta gero libre geratu diren plazetatik esleituko zaizkio, ordura arte egindako praktiketako ibilbidea kontutan hartuta. Kendutako plazak, beste ikasle batzuen praktika lekuak hobetzeko edo harrera unibertsitateetatik etorriko diren ikasleei esleitzeko erabiliko dira.

Penalizazioa ez da aplikatuko baldin eta ikasleak berari ez dagokion arrazoiengatik egiten badio uko plazari. Ukoa arrazoi ekonomikoengatik izaten bada, ikasleak egoera hori egiaztatu beharko du, adibidez, lan-bizitzaren egiaztagiria aurkeztuta.

Hirugarrenei dagozkien osasun arazoak ez dira uko egiteko arrazoi justifikatutzat hartuko.

Penalizazio honen oinarria da, ikasleak beste ikasle batentzako izan zitekeen plaza okupatu izanagatik beste bati mugikortasuna egiteko aukera ukatu izana.

4- Beste arrazoi batzuentzako penalizazioa.

Ikasleak harrera unibertsitateko kideekiko harremanetan errespetua galtzen badu edo EHUren balore eta printzipioak jarraitu gabe aritzen bada, errespetuaren, baloreen edo printzipioen urraketa egiaztatzen den momentuan mugikortasuna bertan behera geratuko da. Kliniketako plazei dagokienez, Praktiketako Batzordeak, libre geratu diren plazetatik esleituko dizkio praktiketako lekuak, ikaslearen ibilbide klinikoan kontutan hartuta.